

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000005297

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_DEK1020**Xedea**

Tokiko enpresek, Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren deialdia zabaltzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, Busturialdeko Udalaren izenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2023ko laguntzen eskaera egin du eta horren ebazpena, Busturialdeko enpresei kontrataziorako diru-laguntzak emateko, jaso du.

Bigarrena: Bermeoko Udalak Busturialdeko enpresei kontrataziorako diru-laguntzak emateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako ebazpenari jarraituz oinarriak eta eranskinak prestatu ditu.

Hirugarrena: Diru-laguntzaren eskabideak egiteko epea: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2024ko otsailaren 29ra arte izango da

Laugarrena: Kontu-hartzaileak 2023ko abenduaren 19an fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehengoa: Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren oinarriak Bermeoko udalaren 2023ko abenduaren 12ko Osoko Bilkuran onartu dira.

Bigarrena: Deialdia exekutatzeak aurreikusita dagoen zenbatekoa 242.934,00 €koa da eta udalaren 2023ko aurrekontuaren 01000-24100-4220105 partidaren pentzura izango da.

Hirugarrena: Erabaki hau hartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, baina 2023ko ekainaren 29ko 2023/3999 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz diru-laguntzak emateko deialdiak onartzea Alkateari dagokio



Erabakia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA: Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik diru-laguntzaren deialdia zabaltzea onartzea.

BIGARRENA: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta diru-laguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa argitaratzea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000E498A00L1A7P5S4I5C2

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/12/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/12/2023
23:54:22

EXPEDIENTE ::
2023IDA_DEK1020

Fecha: 26/09/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

